



**2018KO UZTAILAREN 27KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hemezortziko uztailaren hogeita zazpian, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide eta Marian Zufiria Apeztegia.

Bere ezin etorria adierazi du Joseba Imanol Aran Barandiaran zinegotziak.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2018ko uztailaren 13an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2018ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 63 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HIRUROGEITA HAMAZAZPI MILA EHUN ETA HIRUROGEITA HAMAHIRU EURO ETA BERROGEITA HAMAR ZENTIMO (77.173,50 €)takoa onartzea erabakitzen da.

III.- UDALETXEKO ESTALKIAREN EGITURA INDARTZEKO LANEN LEHEN OBRA EGIAZTAGIRIA.-


Udaletxeko estalkiaren egitura indartzeko lanen obra zuzendaritza daraman Pedro Izaskun arkitektoak lanen lehen obra egiaztatagiria egin du. Lehen obra egiaztatagiriaren zenbatekoa, BEZ barne, HIRUROGEITA HEMEZORTZI MILA LAUREHUN ETA HOGEITA BI EURO ETA HOGEITA BEDERATZI ZENTIMO (78.422,29 €)koa da. Lanak burutzen ari den enpresa Ibarkalde S.L. da.

Udal arkitekto teknikoak ere bere oniritzia eman dio obra egiaztatagiri honi.

Guztai honen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, obra egiaztatagiri hau onartzea erabakitzen du.

IV.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Alkateak hainbat kontratazio prozesuren inguruko informazioa ematen du: 6 hilabeterako administrariaren kontratazioarena, Arieriako zerbitzuen kontratazioarena eta Gurutzeko garajeen eraikuntza eta urbanizazio egiteko kontratazioarena. Baita ere Lazkao Lantzen S.A.k egingo duen Hiribarrengo elektrizitate transformagailuaren kontratazioarena ere.



VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak laurden gutxiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



LAZKAOKO
UDALA